MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

BIAK BAT

Patakon errepidea pasatzeko zain dago, zebrabide baten aurrean, semaforoa gorri dagoelako. Albora etorri zaio Peru, zazpi bat urteko mutikoa. Peruk gerriko berezi bat darama eta hari lotuta dago Duna txakurra.

IRRIEN LAGUNAK TRUEBA + BIZIPOZA

elkarlanean

DUNA LAGUNTZA TXAKURRA DA ETA TXIKITATIK TREBATU DUTE BERE LANA ONGI EGIN DEZAN. ORAIN, PETOA SOINEAN DARAMA ETA BERAK BADAKI LANEAN ARI DELA.
ETA DUNA BEZALAKO TXAKUR GEHIAGO BA AL DAUDE?

BAI, BADIRA GEHIAGO. BIAK BAT ELKARTEAK TXAKURRAK TREBATZEN DITU BEHAR DUTENEI LAGUNTZA EMATEKO.
AIBA! SEMAFOROA BERDE DAGO!

PERU BATZUETAN URDURI JARTZEN DA ETA KORRIKA EGITEKO GOGOA IZATEN DU. ARRISKUA IKUSTEN BADU, DUNAK ERAGOTZI EGITEN DIO.
KASKETA HARRAPATZEN DUENEAN, DUNAK AURPEGIA MIAZKATZEN DIO ETA SEGITUAN PASATZEN ZAIO.
LO ERE ELKARREKIN EGITEN DUTE. ETA DUNAREKIN, ASKOZ LASAIAGO EGITEN DU LO PERUK.
ETA GAINONTZEKOAK ERE UMEEN LAGUNTZA TXAKURRAK AL DIRA
LAGUNTZA TXAKURREK GAUZA ASKO EGITEN DITUZTE. BATZUK ZAHARREN EGOITZETARA ERAMATEN DITUZTE ETA SEKULAKO HARREMANAK SORTZEN DIRA ADINDUEN ETA TXAKURREN ARTEAN
BESTE BATZUK EZINDUEI LAGUNTZEN DIETE
ETA HAUR TXIKIEKIN ERE EGITEN DITUZTE PROIEKTUAK

BIAK BAT

Animaliekin esku-hartzeak

Intervenciones con animales

Biak Bat Elkartearen helburua animaliek lagundutako jarduerak sustatzea eta zabaltzea da. Bereziki, animaliekin lagundutako terapiak egiten dituzte eta ezintasuna duten pertsonentzat laguntza txakurrak prestatzen dituzte. Txakurrak hezten dituzte eta baita txakurren hezitzaileak prestatu ere.

Biak Bat Elkarteak asistentzian, prestakuntzan eta hezkuntzan egiten dute lan bereziki.

BIAK BAT
646123768
info@biakbat.eus
www.biakbat.eus